




**ARASKI:
«EMAKUMEEN
SASKIBALOIAREN
ERREFERENTE
IZAN NAHI DUGU»**

Ale honetan ere...

-  IRITZIA: Goi mailako kirolarien aldeko neurriak
-  ELKARRIZKETA Paloma Mata Codesal, arbitro ohiari
-  Emakundek trebakuntza bultzatzen du enpresetako jazarpen sexuala eta sexistari aurre egiteko



AINHOA AZURMENDI
, PSIKOLOGOA ETA KIROL AHOLKULARIA

Goi mailako kirolarien aldeko neurriak

Goi mailako kirolaria izateak ahalegina, nekea, gauza askori uko egitea eta denbora eskatzen ditu; pazientzia eta ordu luzeko entrenamenduak behar dira helburu zehatzak lortzeko. Goi mailako kirolaria izateak, liga profesionalean, aktibitate “kutun” hori bizimodu edo diru sarrera nagusia bihurtzea ekartzen du. Gainera, goi mailako kirolaria izateak, izen handia edota prestigio soziala ekartzen ditu... ;jala ez? Erantzuna ezezkoa da egungo egoera genero ikuspuntutik aztertzen badugu.

Profesional moduan aritzeko aukera duten emakume kirolariak gutxi dira, gizonen aldean. Goi mailan dauden emakume askok entrenamendu eta bidaiekin batera bateragarri gertatu behar zaien enplegua dute. Goi mailako emakume kirolarien egoeraz Gipuzkoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan egin diren ikerketek kirolari horien babesgabetasuna eta goi maila iristeko ibilbide profesionalean aurkitzen dituzten zailtasunak agerian utzi dituzte.

Gizonek eta emakumeek, haurtzarotik, modu ezberdinean barneratzen dute kirolak zein estatusa izango duen euren etorkizunean. Alde batetik, emakume baino gizon gehiagok adierazten baitu kirol praktikan familiaren laguntza hauteman duelako; eta bestetik, emakumeek eta gizonek praktikatzen dituzten kirolean Elkarteek ez dituztelako baliabide berdinak(ekonomiko, pertsonalekoak eta materialak) erabiltzen. Emakumeek, gizonekin gertatzen ez den bezala, ez dute emakumezko kirolarien eredu edo erreferenteak komunikabideetan barra barra ikusten. Haurtzaroan eta gaztaroan etorkizunerako eginiko proiektzioak betetzen joaten dira eta emakumezko kirolariak emakumeek egiten duten kirola gizartearentzat bigarren mailakoa dela jakitun dira. Emakume izatekotan, goi mailako kirolaria izateak zailtasun handiagoak ekartzen dituela onartzen dute eta gainera, goi mailako kirolariaren oztopo nagusie-



Blanca Urgell, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua, eta Emakundeko zuzendaritza - batzordeak, futbol jokalariekin eta Donostian ospatutako Emakumeak goi mailako kirolan jardunaldiko parte hartzaileekin.

Haurtzaroan eta gaztaroan etorkizunerako eginiko proiektzioak betetzen joaten dira

tako bat egonkortasun ekonomikorik eza dela diote. Gizonen kasuan aspektu ekonomikoa seigarren lekuan aipatzen dute.

ETORKIZUNEN ERONKA: GAINDITZEKO BENETAKO MARKAK

Goi mailako emakume kirolarien egoerak egitura arazoa islatzen du. Hori aldatzeko, zeharka nahiz oinarririk gailurrera ekin behar da, hau da, kirol jardueren hasieratik goi mailako ibilbideraino; kirol esparruko emakumeen egoera hobetzeko egin daitezkeen interbentzio puntualak ahaztu gabe. Ildo horretatik, erakundeen konpromisoak, egiturako aldaketak sortuko dituzten eta kirol maila eta esparru guztietan emakumeen partaidetza bultzatuko dituzten proiektuei lehentasuna eman behar die.

¹ Estudio desde la perspectiva de género sobre la situación de las deportistas de alto nivel de la CAPV.



Euskal Administrazio publikoek nahiko tresna dituzte emakumeen egoera kirol orokorrean hobetzeko eta baita bereziki goi mailako kirolan. Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak emakumeak baztertzen dituzten erakundeei diru laguntzak ematea debekatzen du. Bazterkeria datu kuantitatiboaren bidez (genero eragina diru laguntzan) ikusi daiteke edo bestela ere informazio kualitatiboaren bitartez (emakume kirolarientzat emaniko giza baliabide edota baliabide materialak). Gainera, aipatu legetik sortutako arautegiak, kirol federazioei euren egituretan berdintasunaren aldeko planak garatzeko eskatzen die eta baita kirol esparruan emakumeen partaidetza bultzatzeko ekimenak betetzeko. Nire ustez, legeak betetzeko edo bermatzeko konpromiso eta sentsibilitate falta egungo arazorik handiena da.

Nire ustez, legeak betetzeko edo bermatzeko konpromiso eta sentsibilitate falta egungo arazorik handiena da

Goi mailako kirolarekin zerikusia duten kirol entitateek, Berdintasunaren Aldeko legea betetzeaz gain, goi mailako kirolarien statusa duintzeko neurriak hartu behar dituzte, lan kontratuak eginez eta Gizarte Segurantzza kotizazioa bermatuz. Horretaz gain, liga profesionaletan lehiatzen diren kirolariei laguntza eman behar-ko liekete egoera ekonomikoa hobetuko dien hitzarmen kolektiboa negoziatzeko orduan.

Komunikabideez dagoeneko esan edo idatzita dagoenaz gain, ezer gutxi esan dezaket nik. Emakume kirolarien jardueren berri emateko bete-behar soziala, morala eta legala dute, gainera, estereotipoetatik kanpo eta

irudi egokia emanez. Emakumezko kirolarien babes ekonomikoa —eta horren itzulera— kirolari horiek komunikabideetan duten presentziaren arabera izaten da. Agerraldiak, bakar batzuk ia, ez ohiko kirol arrakasta batekin lotuta egoteak, bide horien bidez irabazi ekonomikoak izatea oztopatzen du.

Finean, gizarteko beste hainbat esparrutan bezala, berdintasuna kirolan, hasi berria den borondatearekin lotura handiagoa du obligazioarekin baino. Bi norabide horietan aldaketa sakona egiten ez den bitartean, berdintasunezko kirol esparru zuzenago baten alde egingo duten eraldaketak ez dira beteko.



«Inoiz ez naute arbitra deitu»

Arbitrajean 21 urterekin hasi zen Bilbon egindako ikastaro baten ondoren eta azkar konturatu zen berdin izango zela zer arbitratzen zuen, ze hori ez zen inoiz ongi arbitratuta egongo. Gehienetan emakumea izateagatik. Futbola negozioa izateko kirola izateari uzten duen mailan aritu nahi ez zuela argi izan zuen beti, baina, sistema sorturik dagoen modugatik, ezinezkoa izango zitzaiola onartzen du aldi berean. Inoiz ez dute “arbitra” deitu eta honek, Kantabriako Unibertsitateak eta bertako Emakumearen Zuzendaritza Orokorrak ematen duten Isabel Torres Sariaren (Emakumea eta Generoa ikasten dituen ikerketa saria) lan irabazlearentzat inspirazio moduan balio zitzaien. Iaz, arbitrajeari agur esan eta gaur egun, gizonezkoen mundu honetan bidea ireki nahi den edozein neskari laguntzen dio. TESTUA: CARMEN RUIZ DE GARIBAY; ARGAZKIAK:

KARLOS CORBELLA

Hezitzaile soziala eta bitartekoa, Bilbon eta Kantabriako arbitro moduan aritu zen sei denboraldietan, bitartekaritza teknikak ezartzen saiatu zen maila baxuagoetan arbitratzen zuela eta. Kadete mailan arbitratzera iritsi zen eta laguntzaile moduan, lehentasunezko maila erregionalean. «Oinarrizko mailako futboleko aritu naiz beti atsegin nuelako. Kirola negozio bihurtzearen aurka nago, eta zenbait mailatan, hala da».

Zuk arbitratu duzun mailetan, arbitro baten ahalmena zalantzan jartzen al da?

Jokalariren aldetik ez hainbeste, baina entrenatzaile, ordezkari, zuzendari eta jendearen aldetik bai. Gauzak nola egin behar dituzun esatera datozkizu, baina gogor eutsi behar diozu zureari. Denetarik esan didate, «alde egin eta garbitzera joan», adibidez, eta horrek mina ematen du, batez ere emakume batek esaten dizunean. Askotan pentsatzen nuen:

goizeko 7etan jaiki naiz 9etan arbitratzeko, hotza, ura eta lokatza jasanez: 10 eta 12 euro bitartean ordaintzen dizkirate hasiberri partiduko eta gainera, halakoak jasan behar?

Arbitratzen nuena gaizki arbitratua egongo zela jakinda iristen nintzen futbol zelaietara. Araudia ezagutzen duela uste duen jendea aurkitzen duzu baina agian ez dute inoiz araudia irakurri, batzuetan portaera harrigarriak dituzte. Maila altuagoetara iristen zaren heinean, presioa jaisten doala esan didate lankide batzuek, ordezkariak, entrenatzaileak eta jokalaria hobe tratatzen zaituztelako. Harmailtan badakigu zer dagoen: emakumea izateagatik zure lanean ona ez zarela uste dute. Diskriminazioa ere irainetan antzeman daiteke, emakumeei zuzenduak doazenak, gizonek jasaten dituzten baino mespretxuzkoagoak izaten dira.

Zure ikerketaren izenburuaz, “Árbitra no me ha llamado nadie”, futbol arbitrajean emakumezkoen presentzia



«Sistema hau, denbora laburrean, objektiboagoa den beste baten ordeztzat espero dut, emakumeen igoera onartzen duen sistema baten ordeztzat, alegia»

aldarrikatzen ari zara. Kirol jarduera honetan, hitza genero femeninoaz sartzeari zaila al da?

Oso. Niri ere arraroa egiten zitzaidan hitza erabiltzea eta eztabaidan ez hasteko, "epaile" gisa aurkezten nuen nire burua edota "partidua arbitratzen duena naiz" esaten nuen, eta baita "arbitratzera nator". "Arbitro" moduan aurkezten diren emakumezko lankideak ditut. Hau beste aldarrikapen bat dela konturatzeak luze jo zuen, hitzak zenbat eta gehiago erabili, gero eta normalagoak egiten zaizkigu. Orain normalena iruditzen zait, baita nire inguruneari ere. Jendea horretara ohitu behar da gero eta normalago izateko. Hitza maskulinoz erabiltzen zutenean, hala nola "Hau arbitro txarra!" ("Qué árbitro más malo!") esaten zutenean, nitaz ez zirela ari pentsatzen nuen.

Kantabrian nahiko onartua dute emakumezko arbitroak daudela, eta ni aritzen nintzen mailetan, jokalariek badakite berdin diola arbitratzen duena neska edo mutila izateak. Eta zuk esanda ez badute ikasten, % 80k, txartela jasoz ikasiko dute. Asko haserretzen nintzen ni ze hortik kanpo nuen lanagatik, birtartekotza egiten saiatzen nintzen, baina, azkenean, txartelaz konpondu behar izaten nuen.

Zure ikerketan, arbitratzearen munduan dagoen objektibotasun faltuari buruz, emakumei mailaz igozteko ez dienaz, aritu zara.

Igoerak, proba fisiko batzuk eta araudiaren ezagutzaren arabera erabakitzen dira azterketen bidez eta baita informatzaile batzuk egiten dituzten txostenengatik. Baina 185 informatzaile horien artean, ez dago emakumerik. Nazio mailan, Arbitroen Komite Teknikoaren menpe daude eta lurralde mailan, Lurraldeko Komitearen menpe. Horiek dira futbol zelaietara joan eta arbitratzen ari den pertsona ebaluatu behar dutenak, nor igo behar den erabakitzeko orduan garrantzi handia dute. Maila horietan informatzailea izateko, lehenengo edota bigarren mailako arbitroa izan behar zara aurretik eta gaur egun, ez dago emakumerik maila horietan. Beraz, emakumezko informatzaileak egotea ezinezkoa da. Lurralde mailan, komite bakoitzak bere baldintzak jartzen ditu: batzuetan, erregional edo goren mailan

arbitratu izatea eskatzen dute.

Proba fisikoei dagokienez, zalantzan jartzen dut eskatzen dena, beharrezkoa baino gehiago den. Badakit hobe dela 15 segundotan 20 metro korritzea 20 segundotan baino, baina arbitratzeko, beharrezkoak al dira eskakizun hauek? Bai Polizian bai Suhiltzaile kidegoan sartzeko emakumeentzako probak desberdinak dira, baina hemen ez. Gizonezkoen eredu bat da, gizonek eta gizonentzako egina. Sistema hau, denbora laburrean, objektiboagoa den beste baten ordeztzat espero dut, emakumeen igoera onartzen duen sistema baten ordeztzat, alegia.

Zeren bestela, orain dauden emakume gutxiak uzten hasiko dira, ezta?

Ez badute igozteko aukerarik ikusten, logikoa da nekatu eta uztea. Nik emakumezko arbitro ezberdinekin harremanetan jarraitzen dut eta bi urtez gazteen mailak arbitratu ondoren, gizonentzako lankideak mailaz igo dira baina emakumezkoak ez. Hamabost eta hamasei urteko neskatxak arbitratzen ari dira baina ez dute inongo emakumezko erreferenterik goiko mailetan. Rocío Puente adibide ona da: gizonentzako bigarren B mailan aritzen da laguntzaile moduan eta balio duena frogatzen utziko balio, lehenengo mailara iristea posible izango luke.

Saritutako lanean, futbol arbitratzean dauden estamentuak maskulinizatuak daudela azaltzen duzu.

Arbitroen Komitea guztiz hierarkizatua dago: behean gaudenok ez dugu ez ahots ez botorik. Kantabriako Arbitro Komitearen lehendakaria, Futbol Komitearen lehendakariak aukeratzen du. Ez dago emakumerik postu garrantzitsuetan, ez lehendakari ezta lehendakariorde gisa. Aztertutako 377 postutatik, 16 dira emakumei dagozkienak eta horietatik 15, idazkari moduan dira, eta 1 administrari moduan.

Ez dago emakumerik Estatu mailako Arbitro Komite Teknikoan, ezta Arbitro Eskola Nazionalan. Zuzendariak, karguan urteak eman dituztenak gizon zaharrak dira eta asko kostatzen zaie aldatetako egitea. Kantabrian arbitratzen dutenak 190 dira, horietatik 7, emakumeak. Euskadin, 2009 – 10 denboraldian

180 ziren, bakarrik 6 emakumeak ziren eta maila baxuetan, eta kopurua ez da handitzen.

Badira ere beste oztopo batzuk txikiagoak, baina deserosoak izan daitezkeenak emakume arbitroen lanaren garapenerako.

Bai, aldagelen instalazioak adibidez, gutxietan daude neskentzako prestatuak. Ez dut esaten neskentzako bat eta mutilentzako beste bat egon behar denik baina behintzat, aldagela berdinean, dutxa zonaldea aparte egotea, eta berrikuntza lanak egiten direnean, detaile horiek kontutan izatea.

Hobetu daitekeen beste gauza bat erabili behar dugun arropa da, ikaragarria da. Ez da estetikagatik, emakumea zarela ezkututzen duelako baizik. Alkandora eroso izatera iristen da baina galtza, ez da bere lekuan mantentzen, gizonentzako gorputzarentzako diseinatu dago. Galtzerdiekin ere berdina gertatzen da, neurri unibertuala dute baina gizonentzakoena eta ez daude oin txikiago batentzat pentsatuta. Ikuspen androentriko hau leku gutxietatik dago.

Faktore guzti hauek erabakigarriak izan al ziren 27 urterekin arbitratzeari uzteko?

Pisu gehienekoa nire familiarena izan da. Zaindu behar dudala sentitzen dut eta arbitratzeak atsekabetu egiten ninduen. Ostiral gauera arte ez zenekien ze partidu izango zenuen. Asteburu batean lau partidu arbitratzera iritsi naiz. Arrazoi asko daude baina hori izan da garrantzitsuenak. Zuzendarien matxismoa jasateaz nekatu naiz. Gauza batzuk ideia txarrik gabe esaten dizkizutela badakizu, oinarria ulertzen dut, baina erak ez ditut batere atsegin. Gainera, beraiek dute agintea: zu aritzen zaren moduan ados ez badaude, ez dizkizute partidurik ematen.

Guzti honengatik ez dut futbol zelaietan borrokatzen jadanik, kirol honetan beste batzuk egiten ari diren gauzak agerian egon daitezkeen borrokatzen dut gaur egun. Astebururo gogor ari dira futbol zelaietan eta esfortzu hori agerian egon behar du eta erreferente bezala baliagarria izan.



ARASKI: «Emakumeen saskibaloia- erreferente izan nahi dugu»

Araskiko —Arabako Emakumeen Saskibaloia Kluben Elkarteko— 90 kideek erabaki dute indarrak batuz, kudeaketa zentralizatuz eta baliabideak optimizatuz jokariak oinarritik prestatzea ahalik eta mailarik altuenean joka dezaten. Emakumeen saskibaloia-eskola bat martxan jarriko dute eta beste hainbat egitasmo dituzte “Nesken garaia” planaren barruan. Kirol honetako erreferente bihurtzeko asmoa dute. Livia López Gutierrezek, Elkarteko lehendakariak, azaldu digu zer egiten duten beraien lekua eta errekonozimendua irabazteko.

TESTUA: CARMEN RUIZ DE GARIBAY; ARGAZKIAK: ZUZENKIPRESS

Emakume hauek, Gasteizko kirol-klubetan eta ikastetxeetan ahaleginak bakarka egiten ari zirenak, beharrak batu zituzten. Orain, elkarte gisa bost talde mantentzen dituzte egitura propio gisa: Caja Vital Kutxa UPV —lehen maila nazionalen—, UPV Álava —bigarren maila nazionalen—, hirugarren taldea —Senior lurralde mailan— eta beste bi talde junior mailan

—bata Euskal Ligan eta bestea Lurralde Ligan—, 16 eta 18 urte bitarteko nesken zatitza. Horiez gain, egitura osatzen dute ikastetxe hitzartuekin eta zabaltzea lortu nahi dute beste ikastetxe eta Arabako beste herri batzuetara.

Livia López —“lehendakari” hitza maite ez duena eta “ordezkari” edo “bozeramaile” deitzea nahiago duena— Abaroa klubeko jokalaria eta

zuzendaria izan zen eta, hortaz, emakumeek kirol hau praktikatzen dutenean, kirolaren indarrak eta ahuleziak ezagutzen ditu. Argi ikusi du kirola egiten duten neska askok harreman araberako egiten dutela. «Badaude beraien betiko lagunekin talde batean jokatzeko duten neskak, eta 17 urte betetzean, unibertsitateko joatean edo hiriz edo ingurunez aldatzean, kirola bertan behera uzten dutenak». Horre-



gatik, oso garrantzitsua da adin txikia-goetan, 10 urtetik aurrera, kontzentrazioetan beste talde batzuetako neskekin parte hartzea, arrotza izan ez dadin beren lagun-taldetik ateratzea. Geure filosofia jokalaria oinarririk beren taldeetan prestatzen laguntzea da, betiere kontakturik zuzenena izanez ahalik eta klub eta ikastetxe gehienekin.

Elkarreak azpimarratzen duen beste puntu bat alde aurretik ditugun ideiak aldatzen saiatzean datza. Elkarreak azpimarratzen du alde aurretik ditugun ideiak aldatzen saiatu behar garela. «Kantxan neska bat ordu luzez aritzen denean friki bat da eta pasako zaio; aldiz, gauza bera egiten duen mutila eredu bat da. Zorionez, pixkanaka estereotipo horiek puskatu egiten dira, nahiz eta neketsua den». Era berean, antzeman dute emakumeak kirol-engranaje sartzeari guztiz positiboa eta beharrezkoa dela. «Kirol-errendimendua eta taldeen martxa hobetu egiten da lan-talde teknikoan emakume bat sartzen bada».

NESENTZAKO SASKIBALOI-ESKOLA

Arabako Saskibaloia Federazioak egindako azterketa batean argi geratu da Gasteizen irakaskuntza publikoan matrikulatutako 9 eta 14 urte bitarteko 250 neskek beren ikastetxean saskibaloira jolastu nahiko luketela; baina kirol horren eskaintza ez dutelako edo beren mailako talderik ez dagoelako edo ez dutelako ordaintzeko baliabide ekonomikorik. Datu hauek Araski bultzatu dute neskontzako soilik izanen den Saskibaloia Eskola baten esperimentu pilotua martxan jartzera. Proiektuaren lehen fasea urtarrilaren 2012tik ekainaren 2012ra arte izanen da.

«Oinarria sortzen joan nahi dugu eta jokalaria prestatu nahi ditugu aukeratu duten kirolean ongi pasa dezaten. Proiektu honen izaera guztiz parte-hartzailea da, bertan izena emateko aukera izanen du nahi duen eta eskolako beste kirol-egituretan parte hartzen ez duen neska orok. Geure asmoa da dibertsio moduan prestatzea eta hezteak, beharrezkoak diren kontzeptuak ezarri, ezagutzetan eta gaitasunetan oinarri sendoa izan dezaten etorkizuneari nahi izanez gero errendimendua-

ren ildoak aukera dezaten. Horrez gain, arretaz zainduko dugu nola sustatzen den lehiakortasuna, badakigulako, ongi jakin ere, gaizki bideratuz gero, ikasketak eta prestakuntza pertsonala eta kirol-prestakuntza kaltetu ditzakeen faktorea dela».

Eskola honetan irakaskuntza kirol-alorretik haratago doa. «Oinarriko baloreen garapena sustatuko dugu, hala nola bizitzan hain garrantzitsuak diren laguntasuna, errespetua, hezkuntza, garbitasuna, obediencia, diziplina, soziabilitatea...»

Saioak astean bitan egiten dira, ordu betez, eta taldeak adinaren arabera osatuko dira, betiere gehienez 15 parte-hartzaileekin: 9 eta 10 urte bitartekoak eta 11 eta 12 urte bitartekoak. Adin-tarte bakoitzerako talde bat eskainiko da Gasteizko Auzo Etxe desberdinetan eta hiriko eremu ezberdinak betetzen saiatuko da.

Hasiera gisa, gabonetako oporretarako Campus bat antolatu da 10 eta 12 urte bitartean dituzten 50-60 neskontzako, eta beste bat udako oporretan.

Gaur egun, saskibaloiak teknika-rien prestakuntza falta du. «Sarritan behar adinako ezagutzarik ez duten neska-mutil gazteek beraiek baino gazteagoak direnak entrenatzen dituzte. Eskolan borrokatuko dugu pertsonal kualifikatua —15 jokalariko talde bakoitzeko 2 pertsona— izateko eta, gainera, beren laguntzaileak prestatu ditzaten». Horrez gain, etorkizuneko entrenatzaileak prestatzen lagundu nahi dute; eta horretarako, lehen, bigarren eta hirugarren mailako entrenatzaile-titulua atera nahi dutenentzako bekak sortu dituzte. Beka horiek kurtsoaren kostuaren % 50 estaltzen dute.

TRANSMITITU EXISTITZEKO

Proiektu hauek guztiak ezagutzera emateko, elkarreak komunikazio-departamentua indartu du hiru bazkideekin. Horiek arduratzen dira komunikabideei informazioa emateaz, gizarte sareak eta web orrialdea kudeatzeaz, eta auto-promozioaz. «Asko egin arren, transmititzeko gai ez bagara, existituko ez bagina bezala da».

Emakumezkoen saskibaloia sustatzeko eta hedatzeko, Arabako uda-



lerrietan ate irekiko jardunaldiak antolatuko dira parte-hartzaile berriak erakartzeko. «Jarduera hori 10 eta 14 urte bitarteko neskontzat pentsatua dago. Neska horiek egun batez beren udalerriko instalazioetan probatu ahal izango dute modu egoki eta ez lehiakor batean ea gogoko duten kirola den. Parte-hartzaile bakoitzari “pasaporte” bat eman go zaio eta jokalariek bertan markak egingo dituzte diziplina ezberdinetan parte hartu ahal. Helburua pasaportea osatzea izango da».

Livia López eta bere elkarkekideak laguntzak eta sostengu instituzionala eskatzerakoan argudioz josita daude: «Baina ez da erraza. Lan soziala egiten ari garenoi, emakumezkoen saskibaloian erreferente izan nahi dugunoi —neskek non begiratu izan dezaten eta ikusgai izan daitezten—, berdintasunerako planak praktikan jartzen ditugunoi instituzioek esaten digute ez dutela esumenik edo ez dutela dirurik; eta hori da gure benetako borroka. Ziur gaude horrelako proiektuak sustatzea borondate kontua besterik ez dela».



EMAKUNDEK TREBAKUNTZA BULTZATZEN DU ENPRESETAKO JAZARPEN SEXUALA ETA SEXISTARI AURRE EGITEKO

50 langiletik gora dituzten 16 euskal enpresek konpromisoa hartu dute jazarpen sexuala eta sexistari aurre egiteko protokoloa abian jartzeko. Protokoloa lantalde interdisziplinari batek egin zuen eta lantalde hori erakunde publiko eta unibertsitate ezberdinetako adituek osatzen zuten. Lantaldea Emakunde koordinatu zuen eta ondoren Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritzarekin eta Laneko Ikuskatzailetzarekin kontrastatu zuen. Emakunde bere egoitzan azaroaren 29an eta 30ean egindako trebakuntza-jardunaldietan izan ziren 16 enpresetako ordezkariak; ordezkari horietatik zortzi Aholkularitza Konfidentzietako ordezkari gisa eta beste zortzi Emakunde homologatutako Aholkularitza eta prebenitzeko protokoloak martxan jartzeko aholkularitza ematen dute. Jardunaldietan parte hartu zuten M^o Jesús Izquierdok, Maru Sarasolak, Sebastián Sarasolak, Lourdes Lorentek eta Olga Fotinopulosek.

EMAKUME ETA GIZONEN EGOERARI BURUZKO 2011KO TXOSTENA ONARTU DA

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak onartu egin zuen Epaimahai berriaren eraketa, 2011ko Emakunde saria emateko. Bileran berean, abenduaren 13an egindakoan, ondokoak ere onartu zituen: "2011n Euskal Autonomia Erkidegoko gizon-emakumeen egoerari buruzko kopuruen" urteko txostena, "Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako Erakunde Laguntzailea" onartzea arautzen duen dekretu-proposamena eta 2012. urterako diru-laguntzak nola eman arautzen duten erabakiak; diru-laguntza horiek elkartegintza sustatzeko izango dira eta emakumeen parte-hartzea bultzatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan.



BERDINTASUNERAKO ERAKUNDE LAGUNTZAILEEI ZIURTAGIRIA EMAN ZITZAIEN

ASFEDEBI, INVIZA, CEI, Kirol Management, ITELAZPI, Usoa Lantegia, Nuevo Futuro eta Margotu elkarteek Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakunde izendatzen duen bereizgarria jaso zuten. Hauekin batera, 67 entitate dira dagoeneko Lankidetzaren Erakunde bereizgarria jaso dutenak 1994. urtean eratu zenetik. Honen helburua da euren erakundeetan emakume eta gizonen berdintasunarekin konpromisoa hartzen duten entitateen lana aitortzea.

EMAKUNDEK, BERDINTASUNERAKO LEGEAREN APLIKAZIOAREN LORPENAK ETA BETE-BEHARRAK AURKEZTU DITU EUSKO LEGE BILTZARREAN

Eusko Lege Biltzarreko Gizarte Politika, Lan eta Berdintasun Batzordeari aurkeztu dio 2010eko txostena Emakunde, 2005ean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea onartu zenetik eman diren aurrerapenak balioesten dituen. Ikerketak, Legea betebeharrean eman diren lorpen garrantzitsuenak nabarmentzen ditu, hala nola, egituren sorkuntzarako eta lankideen espezializaziorako egin den esfortzua, eta oraindik garatu edo betebeharrak gabe dauden alde horiek ere aztertu ditu: elkarte eta antolakuntza profesional ezberdinen zuzendaritza – organoetan, baita gizarte ekonomia, sindikatu eta politika antolakuntzetan ere, emakume eta gizonen presentzia orekatu beharra dago, adibidez.

ZERBITZU PUBLIKOEN KALITATEARI BURUZKO HIRUGARREN ESTATUKO KONFERENTZIAN PARTE HARTU DU EMAKUNDEK

"Botere publikoaren jarduerari buruzko jarraipen – ebaluaketa EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planen

exekuzioan" izenburupean, Emakundeko idazkari orokorra den Arantza Elizondok, txosten bat aurkeztu zuen azaroaren 29 eta 30ean Eusko Jaurlaritzak eta Politika Publiko eta Zerbitzuen Kalitatea Ebaluatze-ko Estatuko Agentziak (gaztelaraz AEVAL), Bilbon antolatutako Zerbitzu Publikoen Kalitateari buruzko Hirugarren Estatuko Konferentziaren barne. "Kalitatearen balio erantsia. Lankidetzaren parte-hartzea efizienteagoak izateko" izan zen jardunaldiaren leloa, bi lerrotan garatu zena: Lana Sarean / Sareen Kudeaketa eta Kalitatearen Kudeaketa: efizientzia eta jasangarritasuna.

EZBERDINTASUNAK BEREN ETORKIZUNA AUKERATZERAKOAN, NAHIKO PROGRAMAK EGINDAKO SEIGARREN MINTEGIAN

Eusko Jaurlaritzaren Bilboko ordezkari Nahiako programaren seigarren mintegia egingo da Urtarrilaren 18an. Seigarren mintegi honetan, irakasleriarekin batera ebaluatuko da aurreko kurtsoan egindako lana, eta kurtso honetarako dauden aurreikuspenak eta irakas-materiala aurkeztuko dira. Horrez gain, Graciela Hernández Morales soziologo eta hezitzaileak hitzaldi bat emango du "Bakoitzak bere bizitza erabakitze, aukeratzeko eta sortzeko borondatea"-ri buruz; hitzaldian bertan aztertuko ditu neska-mutiek dituzten diferentziak eta ezberdintasunak desioetan, beharretan, helburuetan eta proiektuetan. Era berean, garapen singular batetarako alternatibak eta eskolaredu kohezitzaileak aztertuko ditu. "Nahiko programa" Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo aurkeztu zen, hain zuzen ere, 2011ko azaroan Avilensen burutu zen Genero Berdintasunaren eta Hezkuntzaren Biltzarrean.

EGITURA – FUNTSETAN BERDINTASUNARI BURUZKO JARDUNALDIA

EGIF (Europako Gizarte Funtza) eta Euskadiko EGEF (Eskualde Garapenerako Europako Funtza) programetan emakume eta gizonen arteko berdintasunaren estrategia indartzeko helburuarekin, bi funts hauek kudeatzen dituzten bitarteko erakundeak, Emakunderen laguntzarekin, "EGIF eta EGEFen aukera – berdintasuna sartzeari buruzko jardunaldia" antolatu zuten Bilboko Eusko Jaurlaritzako Ordezkaritzan azaroaren 23an.

Aldizkariaren edizio digitalean, eduki gehiago: www.emakunde.euskadi.net/revista

- Enpresa pribatu edo herri erakundeek berdintasunaren alde burututako ekimenak.
- Jarduera interesgarrien agenda.
- Beste emakumeekin konektatzeko atala.
- Iritzia emateko lekua.

Idizioa: Emakunde. Koordinazio teknikoa: Kazeta 5. Diseinua: Didart. Inprimatzailea: Gráficas Santa María. Lege Gordailua: VI 465-2010